



# ALARMA-SINTOMAK DEMENTZIETAN



POR SOLIDARIDAD  
OTROS FINES DE INTERÉS SOCIAL



**D**ementziaren hasierako sintomak oroimenaren galeratik haratago doaz. Hizkuntzaren asaldurak, portaera, plangintza, espazio- eta denbora-desorientazioa dira gaixotasuna hasi zenetik ager daitezkeen beste adierazpen batzuk.

## Eguneroko bizitza oztopatzen duten oroimen-aldaketak

- Data edo gertaera garrantzitsuak ahazten dituzte.
- Informazio bera behin eta berriz eskatzen dute.
- Gauzak gogoratzeko laguntza-sistemen edo senideen sostengua bilatzen dute.

## Gauzak planifikatzeko edo arazoak ebazteko zailtasuna

- Lanerako plana garatzeko zailtasuna.
- Sukaldeko errezeta baten urratsak jarraitzeko zailtasuna.
- Hileroko kontuak eta ordainagiriak kudeatzeko zailtasuna.
- Kontzentrazio-arazoak.
- Lanean aurrekontu bat administratzeko arazoak.
- Jolas ezagun baten arauak gogoratzeko zailtasuna.
- Denbora-pasa bat ulertzeko zailtasuna.

## Desorientazioa denboran eta espazioan

- Data garrantzitsuak eta egungo data ahazten dituzte.
- Non dauden eta nola heldu diren gogoratzeko zailtasuna dute.
- Ereku ezagunetan orientatzeko arazoak izaten dituzte.
- Distantziak kalkulatzeko eta hautemateko arazoak izaten dituzte.


## Ikusizko irudiak hautemateko eta ulertzeko zailtasuna

- Arazoak aurpegi bat, objektuak, koloreak eta kontrasteak ezagutzeko.



## Arazoak dituzte hitzekin, ahoz zein idatziz

- Elkarrizketa bat, telebista-programa bat, egunkaria eta abar ulertzeko arazoak.
- Hitz egiteko orduan hitz egokiak aurkitzeko arazoak.
- Gauzen okerreko izena erabiltzen du.



## Objektuak lekuz kanpo jarri eta non zeuden gogoratzeko arazoak

- Gauzak bere lekutik kanpo jarri eta galdu egiten dituzte.
- Besteei gauzak lapurtzea leporatu diezaiekete, edo ezkutatzeta edo eramatea.

## Zentzumena murriztea

- Erabaki konplexuak nahiz sinpleak hartzeko arazoak dituzte.
- Hausnartu gabeko erabakiak hartzeko joera.
- Ez dituzte baloratzen beren ekintzen ondorioak.
- Gehienetan okerrekoa izan ohi den ideia bati eusteko joera dute.



## Ez dute ekimenik ez lanean eta ez gizarte-jardueretan

- Denbora-pasak egiteko edo gizarte- edo kirol-jardueretan parte hartzeko ekimena falta zaie.
- Lehen gozarazi egiten zien jarduerak egiteko "gogoa" galtzen dute.

## Umore- eta nortasun-aldaketak izaten dituzte

- Nahastuta, etsita edo beldurti egon daitezke, edo antsietatea izan.
- Etxean, lanean eta lagunekin haserretzeko erraztasuna dute.
- Mehatxuren bat hautematen dutenean haserretzeko erraztasuna.
- Ideia bat inposatzeko edo "aurka egiteko" egoeretan haserretzeko erraztasuna.





Informazio gehiago:  
[www.ceafa.es/entornos-amigables](http://www.ceafa.es/entornos-amigables)

INGURUNE LAGUNKOI  
ETA SOLIDARIOAK  
DEMENTZIEKIN



**CONFEDERACIÓN  
ESPAÑOLA DE  
ALZHEIMER**